

**DEUSTUKO UNIBERTSITATEKO IKASTURTEAREN HASIERA  
APERTURA CURSO UNIVERSIDAD DE DEUSTO**

2018-09-19 Bilbao 19-09-2018

*Lehendakariaren hitzaldia – Discurso del Lehendakari*

Errektore jaun txit gorena, Jesus Langundiaren probintziala, herri agintari eta herri ordezkariok, Bilboko Elizbarrutiko gotzain jauna, errektore ohia, Deustuko Unibertsitateko Gobernu kontseilukideak zaretenok eta etorritako baita UPV-Euskal Herriko Unibertsitateko errektore anderea, Mondragon Unibertsitateko errektore jauna eta Tecnun Nafarroako zuzendari jauna ere bai; jaun andreok, egun on.

Eider Landaberea, idazkari orokorra, aurreko kurtsoaren Memoria aurkeztu duzu; Jose Antonio Madariaga, Joseba Madariaga hasierako hitzaldia irakurri duzu; eta Errektore jaunak egungo helburu eta erronken berri eman digu.

Eskerrik asko denoi eta batez ere aurten, Deustuko Unibertsitatea osatzen duzuen oro zoriondu egin nahi zaituztet pasa den uztailean bikaintasunaren nazioarteko aitortza jaso zenutelako.

“Global Teaching Excellence Award 2018” sariak heziketa-eredu eredugarria aitortzen du. Nazioartean ospea handia duen Sari honi esker, Deustuko Unibertsitatea eta Euskadi, bikaintasunaren panoraman kokatu egin duzue.

Mis primeras palabras son de felicitación a todas las personas que formáis parte de la Universidad de Deusto, por el reconocimiento a la excelencia de vuestro modelo que supone el Premio internacional “Global Teaching Excellence Award 2018.”

**Modelo educativo, excelencia e internacionalización.** Son conceptos que van de la mano y que van a marcar el futuro de la Universidad y del conjunto de Euskadi. La formación y atracción de talento es un ámbito de colaboración que estamos trabajando entre la Universidad de Deusto y el Gobierno Vasco.

La apuesta por impulsar la Formación Dual Universitaria forma parte, también, del modelo de excelencia que compartimos. Esta es una característica innovadora en el contexto de los sistemas universitarios en Europa. Reconocemos la capacidad y determinación de la Universidad de Deusto para impulsar progresivamente este modelo. Destacamos la colaboración con la Formación Profesional como elemento diferencial.

Deustuko Unibertsitatearen berezitasunak beti izan dira balioetan irakastea eta gizartearen aldeko zerbitzu-bokazio unibertsala. Ardatza pertsonari zerbitzua

eskaintzea da. Azpimarragarria da jardunean ikuspegi profesional, humanista eta etikoa eskaintzeko gaitasuna.

Honekin batera, Deustuko Unibertsitatea bereziki indartsua da nazioarteko esparruan, eta talentu berriak hezi eta ekartzea funtsezko erronka bat da.

Pasa den astean, Eusko Jaurlaritzak parte hartu zuen Deustuko Unibertsitateak ikerkuntzak gizartean duen eraginari buruz antolatutako jardunaldietan. Jardunaldiok Europako proiektu batean kokatzen ziren. Gure ikuspegia eskaini genuen eta bertan egindako hausnarketetan parte hartu.

Honako ekarpen hauek azpimarratu nahi ditugu: bikaintasun-ikerkuntzaren balioa, ezagutzaren transferentzia eta horrek gizartean duen eragina, gizartean aurrerapenean eta transformazioan duen eragina alegia.

Esta Universidad se ha distinguido siempre por su formación en valores y una vocación universal de servicio a la sociedad. El eje es el servicio a la persona y la capacidad para integrar una visión profesional, humanista y ética que impregna sus relaciones con la sociedad.

Sobre esta sólida base en valores, nuestra apuesta compartida es que Deusto siga creciendo como Universidad de referencia internacional. He citado el reconocimiento internacional recibido el pasado mes de julio. Recuerdo, también, la relevancia y proyección del Congreso Deep Learning que se organizó el pasado año. La pasada semana el Gobierno Vasco participó en las Jornadas sobre impacto social de la investigación que organizasteis, enmarcadas en un proyecto Europeo.

Compartimos el objetivo europeo de poner en valor la investigación de excelencia, la transferencia de conocimiento y su impacto en la sociedad.

La red mundial que formáis también el conjunto de las Universidades jesuitas es de extraordinaria importancia para nuestro País. La Universidad de Deusto es especialmente fuerte en el ámbito internacional. Formar y atraer talento es parte de un reto fundamental para el desarrollo futuro de Euskadi.

Deustuko Unibertsitateak 2019-2022rako lantzen ari garen Plangintzan parte hartzen ari da. Zuen lana eta ekarpena eskertu nahi ditugu, eta lotzen gaituzten helburuak azpimarratu:

- Heziketarako partekatutako eredu berriak jorratu;
- Enpresa mundura gehiago hurbildu, lankidetzaren areagotzeko;
- Ikerketan sakondu bikaintasuna sustatzeko; eta
- Unibertsitatea mundu zabalera irekitzen jarraitu.

Este curso vamos a seguir colaborando en el Plan del Sistema Universitario Vasco 2022. Apostamos por que la formación universitaria esté vinculada a las necesidades formativas y la empleabilidad; por una capacitación que mejore la colaboración con las empresas y los agentes sociales; por avanzar en la investigación y los nuevos modelos de enseñanza y aprendizaje.

El Gobierno Vasco agradece la participación de la Universidad de Deusto y seguiremos avanzando sobre los pilares de vuestro modelo educativo, la excelencia y la internacionalización. La formación integral de la persona es un bien común para nuestra sociedad.

Aurrera egin behar dugu, auzolanean, zehaztutako helburuak lortzeko eta gizartearen bilakaera eta garapena ahalbidetzeko. Xede honekin, hasiera ematen diot 2018-2019 Deustuko Unibertsitateko ikasturtari.

Con esto declaro abierto el curso académico 2018-2019.

Zorionak berriro ere eta eskerrik asko guztioi!